

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2023ko iraila

Aurkibidea

1. Gizarte Segurantzako afiliazioa

2. Langabezia erregistratua

3. Inflazioa

4. Kanpo merkataritza

5. PMI konposatua

6. Sentimendu ekonomikoa

Eranskina

1. Gizarte Segurantzako afiliazioak bere hazkunde erritmoa areagotu du.

Urte arteko aldakuntza tasa %1,8an kokatu zen abuztuan.

2. Langabezia erregistratuak murrizten jarraitzen du.

Abuztuan, langabeziaren jaitsiera handiagoa izan zen gizonen artean emakumeen artean baino.

3. EAEko KPIa %2,6ra igo zen uztailean

Erregaien garestitzea da gorakada horren arrazoietakoa bat.

4. EAEko esportazioek hazkundera galgatu dute.

Bigarren hiruhilekoan, atzerrian saldutakoa %11,0 gutxitu zen.

5. Euroguneko jarduera ekonomikoa murriztu egin zen abuztuan

Hilabete horretan, PMI konposatua 46,7an kokatu zen, ia hiru urtean izan duen balio txikienean.

6. Udako hilekoetan europarren ezkortasuna handitu da.

Halere, enpleguarekiko igurikimenez positiboak izaten jarraitzen dute.



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioak bere hazkunde erritmoa areagotu du

Gizarte Segurantzako afiliazioak zertxobait bizkortu zuen hazkunde erritmoa abuztuan. Hain zuzen ere, hilabete horretako aldakuntza tasa %1,8 izan zen, aurreko bi hilabeteetan baino hamarren bat eta bi gehiago, hurrenez hurren. Hala ere, milioi bat afiliazio baino gehiago izan ondoren, erregistratutako kopurua 986.497 afiliaturaino murriztu da.

Azken hilabeteetan bezala, igoera hori nabarmenagoa izan zen emakumeen artean gizonen artean baino. Hala, lehenengo kasuan, hazkundea %2,2koa izan zen, 468.235 afiliaturekin, eta gizonetzko afiliatuen kopurua, berriz, %1,4koa izan zen, 518.262 afiliadorekin. Horiek horrela, sexu bakoitzaren banaketa %47 eta %53 da, hurrenez hurren.


GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA.

GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

ABUZTUKO AFILIAZIOA


%1,8



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA.

EMAKUMEAK


Urte arteko aldakuntza tasa



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA.


GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa




AFILIAZIOA INDUSTRIAN

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



Beste behin ere, afiliazioaren gorakada nabarmen handiagoa izan zen zerbitzuetan (%2,1) gainerako sektoreetan baino, %1,0ko aldakuntza tasa izan baitzuten industrian eta %0,6koa, berriz, eraikuntzan. Hazkundeak ia jarduera adar guztietan lortu ziren, eta nabarmentzekoa

da osasun jardueretan eta ostalaritzan izandako gorakada, 2.500 afiliazio berri baino gehiagorekin. Era berean, guztizkoaren gainean pisu handia duten jarduerak, hala nola manuakturen industriek eta merkataritzak, gehikuntza nabarmenak izan zituzten.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOAK GUZTIRA

	2022ko abuztua	2023ko abuztua	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	969.294	986.497	17.203
Industria manuakturagileak	171.388	173.011	1.623
Merkataritza	135.254	136.387	1.133
Osasun arloko jarduera	113.895	116.565	2.670
Hezkuntza	68.771	70.488	1.717
Administrazio jarduerak	68.520	68.290	-230
Ostalaritza	62.291	64.837	2.546
Lanbide jarduerak	59.332	61.115	1.783
Eraikuntza	57.920	58.260	340
Administrazio publikoa	50.415	51.522	1.107
Garraioa	43.832	45.375	1.543
Etxeko langileak	28.925	29.143	218
Informazioa eta komunikazioa	25.029	26.618	1.589
Bestelako zerbitzuak	25.399	25.564	165
Finantza jarduerak	16.774	16.912	138
Jarduera artistikoak	16.168	16.859	691
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	12.140	12.087	-53
Ur horniketa	6.744	6.803	59
Higiezin jarduerak	4.298	4.323	25
Energia horniketak	1.562	1.731	169
Erauzketa industriak	558	533	-25
Lurraldez kanpoko erakundeak	80	75	-5

Iturria: Gizarte Segurantza.



LANGABEZIA ERREGISTRATUA

Langabezia erregistratuak murrizten jarraitzen du

Lanbideren bulegoetan 108.658 langabe erregistratu ziren abuztuan, hileko horretan 2008tik izandako kopururik txikiena dena, baina egia da urte arteko jaitsieraren erritmoa (-%4,5) motel- du egin dela 2022ko lehen sei hilekoan erregistratutakoarekin alderatuta. Hain zuzen ere, due- la urtebete baino 5.100 langabe gutxiago daude

gaur egun, eta horrek erakusten du EAEn enple- guaren susperraldia sendotzen ari dela. Era be- rean, beste datu positibo bat kontratu mugaga- been kopuruaren bilakaera da; izan ere, kontra- tu guztien %22 baino gehiago mugagabeak izan dira, 2022an erregistratutako lan erreformaren ondorioz.


LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

LANGABEZIA ERREGISTRATUA.


ABUZTUA

-%4,5




LANGABEZIA ERREGIST. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA. GAZTEAK


Urte arteko aldakuntza tasa



Erregistratutako langabezia sexuaren arabera izan duen bilakaerari dagokionez, berriz ere langabeziaren beherakada nabarmenagoa izan zen gizonen artean (-%5,8) emakumeen artean baino (-%3,5). Era berean, adin tarteen araberrako analisiak egiaztatzen du biztanleriarik gazteenak jarraitzen duela egoera ahulenean, tasa

LANGABEZIA. ATZERRITARRAK

Urte arteko aldakuntza tasa



positiboetan kokatu baitzen (%0,4), eta 25 urtetik gorako biztanleriak, berriz, ez zituen tasa negatiboak alde batera utzi (-%4,5). Azkenik, jarduera sektoreei dagokionez, guztiek izan zituzten jaitsierak, eta industria eta eraikuntza nabarmendu ziren, biak %12ko jaitsierekin.

LANGABEAK

	2022ko abuztua	2023ko abuztua	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	113.758	108.658	-5.100
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	19.646	19.032	-614
Bizkaia	64.239	60.905	-3.334
Gipuzkoa	29.873	28.721	-1.152
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	48.060	45.274	-2.786
Emakumeak	65.698	63.384	-2.314
25 urtetik beherakoak	8.347	8.383	36
25 urte baino gehiago dutenak	105.411	100.275	-5.136
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	2.211	1.889	-322
Industria	12.194	10.727	-1.467
Eraikuntza	7.053	6.209	-844
Zerbitzuak	79.201	76.784	-2.417
Lehenago lan egin dutenak	100.659	95.609	-5.050
Lehenago lan egin ez dutenak	13.099	13.049	-50
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	17.664	18.261	597


Iturria: SEPE.

INFLAZIOA

EAEko KPIa %2,6ra igo zen uztailean

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



EAEko kontsumoko prezioak %2,6 igo ziren uztailean, ekaineko tasa baino hiru hamarren gehiago. Beraz, goranzko bideari ekin zaio berriro. Goranzko bilakaera horren arrazoi nagusia erregaien prezioetan eta elikagaien taldean izandako garestitzea izan zen, igoera nabarmenak izan baitzituzten.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2023ko uztaila
Inflazio osoa	3,1	8,1	2,6
Azpiko inflazioa	1,0	5,1	6,4
- Elikagai landuak	1,4	10,2	11,5
- Industria ondasunak	1,0	4,7	5,0
- Zerbitzuak	0,7	3,3	4,6
Hondar inflazioa	12,1	20,0	-11,5
- Landu gabeko janariak	2,6	10,8	6,4
- Energia	21,3	28,2	-24,5


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




BRENT PETROLIO UPELAREN PREZIOA

Hileko batez bestekoa. Dolarrak upeleko



TTF GAS NATURALAREN PREZIOA

Hileko batez bestekoa. Euro MWh-ko



Hain zuzen ere, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak bi digituko igoyerara itzuli ziren, eta hiru hilabetez jarraian erakutsi zuen beheranzko joerari amaiera eman zioten. Era berean, garraio taldea, tasa negatiboetan mantendu bazen ere (-%4,2), aurreko hilabetearen aldean gehien hazi zena izan zen, bi puntu eta sei hamarreneko gehikuntza izanik, erregaien prezioak eraginda. Petrolioaren gorakadak eragin negatiboa izan du herrialde horietan, Saudi Arabiak eta

Errusiak hartutako erabakiek eraginda. Izan ere, herrialde horiek alde bakarreko murrizketak iragarri zituzten petrolioaren ekoizpenean irailera arte. Era berean, aisialdiko eta kulturako taldeak KPI orokorraren aurrerapenari egindako ekarpena nabarmentzen da. Izan ere, talde horrek %7,8ko tasa ezarri zuen, aurreko hilean baino bi puntu eta hamarren bat gehiago, turismoaren prezioak aurreko urteko aldi berean baino gehiago igo zirelako.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2023ko uztaila

	Euskadi	Espania	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	2,6	2,3	5,3
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	10,1	10,8	11,5
Edari alkoholik eta tabakoa	7,0	7,8	7,6
Jantziak eta oinetakoak	2,6	2,1	3,8
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-16,0	-14,9	0,8
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	5,7	4,4	6,0
Osasuna	2,1	2,1	3,0
Garraioa	-4,2	-5,3	0,8
Komunikazioak	4,3	4,3	-0,1
Aisia eta kultura	7,8	7,2	6,6
Hezkuntza	1,9	1,6	4,5
Jatetxeak eta hotelak	5,9	6,5	7,5
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	5,5	5,0	5,4

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.




EAEko esportazioek hazkundera galgatu dute

ESPORTAZIOAK GUZTIRA

Milioi euro

2023KO 2. HIRUHILEKOA
HAZKUNDE TASA
-%11,0




Ziur asko, gaur egungo ziurgabetasunak eraginda, EAEko kanpo merkataritzaren bultzada galgatu egin zen aurreko aldiekin alderatuta. Zehatz-mehatz adierazita, aurtengo bigarren hiruhilekoko esportazioak 8.100 milioi eurotik zertxobait gorago kokatu ziren, hau da, urte arteko tasa %11,0 jaitsi zen. Hala eta guztiz ere, lehen seihileko osoa aztertuz gero, datuak positiboak dira oraindik, Euskadiko esportazioak %3,4 hazi baitziren, 17.000 milioi euro baino gehiago salduz.

Azken hiruhilekoetan ez bezala, EAEko ekonomiaren sektore guztiak, garraio materialak izan ezik (%8,0), ekipo ondasunak barne hartzen baititu, urte arteko aldakuntza tasa negatiboak izan zituzten, eta jaitsiera oso nabarmenak izan ziren produktu mineralak (-%55,6) eta produktu kimikoak (-%32,7) bezalako sektoreetan. Bestalde, bai esportazio energetikoak (-%59,6) bai ez-energetikoak (-%6,9) murriztu egin ziren aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, eta azken horien kasuan zerbait berria da.


ESPORTAZIO EZ-ENERGETIKOAK

Milioi euro



ESPORTAZIO ENERGETIKOAK

Milioi euro



ESPORTAZIOAK HELMUGAREN ARABERA. 2023KO 2. HIRUHILEKOA

Herraldea	%
Alemania	17,0
Frantzia	14,8
AEB	7,1
Erresuma Batua	6,3
Italia	5,5
Belgika	5,1
Portugal	4,5
Herbehereak	4,0
Polonia	2,5

ESPORTAZIOEN BANAKETA. 2023KO 2. HIRUHILEKOA


Arantzel taldea	%
Ekipamendu ondasunak	47,8
Garraio materiala	28,9
Makinak eta aparatuak	18,8
Metal arruntak eta manuf.	23,0
Plastikoa eta kautxua	6,4
Nekazaritzako produktuak	7,2
Produktu mine.eta energetikoak	4,0
Produktu kimikoak	2,7
Papera	2,4

Esportazioen xedeari dagokionez, beste behin ere, Europar Batasuna izan zen EAEko esportazioen lehen hartzailea, %63,4ko merkatu kuotarekin, eta nabarmentzekoa da Alemaniara (%17,0) eta Frantziara (%14,8) esportatutako produktuen hazkundera. Europar Batasunetik kanpo, berriz ere nabarmendu zen Erresuma Batuaren pisua, nahiz eta makinak eta aparatuen adarreko salmentak soilik handitu ziren. Era berean, Errusiarako esportazioen beherakadak jarraitu zuen, baina EAEko kanpo merkataritzan duen pisua oso txikia izan.

Beste aldetik, guztizko inportazioak eurotan, esportazioen kasuan bezala, murriztu egin ziren (-%9,9). Aurreko guztiaren ondorioz, guztizko saldoak superabita izaten jarraitu zuen 1.056 milioi euro baino gehiagotan, aurreko hiruhilekoan baino askoz ere txikiagoa, nahiz eta bilakaera horrek %100etik gorako estaldura tasari eustea ahalbidetu zuen. Energia saldoa negatiboa izan zen, 1.434 milioi euro guztira; saldo ez-energetikoa, berriz, Euskadiren aldekoa izan zen, eta 2.491 milioi eurora iritsi zen.

INPORTAZIOAK GUZTIRA


Milioi euro



Iturria: Eustat

SALDOA GUZTIRA

Milioi euro





PMI KONPOSATUA


Eurogunearen jarduera ekonomikoa murriztu egin zen abuztuan

Abuztuan, euroaren eremuko PMI konposatua 46,7an kokatu zen, hogeita hamahiru hilekoetan izan duen gutxieneko balioa baita. Jardueraren beherakadak manufakturei zein zerbitzuei eragiten die jada, azken horiek udaberrian indar handia erakutsi zuten eta uztaile arte hedatzen jarraitu zuten arren. Halaber, 2013tik jaso den daturik txarrena izan da, pandemia aldia albo batera uzten bada. Eskaera berriek beherakada


handia izan zuten, eta enpresek egin gabe zeuden lanak amaitzeko aprobeztatu zuten. Egoera horrek eragina du datozen hamabi hilabeteetarako aurreikuspenetan, orain bereziki ahulak baitira. Beste aldetik, enpleguaren sorrera ia gelditu egin da eta sargaien prezioek gora egin dute abuztuan, ordura arte zeramaten motel-tzeko prozesua geldituz.

PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA


2023KO ABUZTUA
46,7




MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA



ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA




PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




Jarduera ekonomikoaren okertzea orokorra da eta une hauetan herrialde nagusi guztiak daude 50eko balioaren azpitik, hau da, uzkurdua eremuan. Nabarmentzekoa da Alemaniak bizi duen une txarra; izan ere, abuztuan 44,6ra jaitsi zen adierazlea, eta ia lau puntu galdu ditu hilabete bakarrean. Herrialde horretan, zerbitzuek (47,3) bost puntu galdu dituzte, eta jardueraren jaitsiera eremuan murgildu dira.

Espainia une ekonomikoari ondoen erantzuten zion herrialdeetako bat zen, zerbitzuen sendotasunari esker. Hala ere, abuztuan sektore hori 49,3ra jaitsi da, eta horren ondorioz indize konposatua 48,6 mailara jaitsi da, hori ere uzkurtze eremuan.


PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. ITALIA



PMI KONPOSATUA. ESPAINIA



Iturria: Markit




EKONOMIAREN SENTIMENDUA

Udako hilekoetan europarren ezkortasuna handitu da

SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROGUNEA

2023KO ABUZTUA
93,3




Europako Batzordeak argitaratzen duen sentimendu ekonomikoaren indizeak beherakada luzatu egin zuen udako hilabeteetan, eta abuztuan 93,3an kokatu zen eurogunean, eta 92,9an, berriz, Europar Batasunean. Bi kasuetan, 2000. urteaz geroztik erregistratutako batez besteko balioaren (100) azpian daude. Okerrera egin dute adierazlea osatzen duten atal guztiek, baina bereziki nabarmena da industriaren narriadura.


Bilakaera negatibo hori gorabehera, enpleguari buruzko igurikimenek baikorrak izaten jarraitzen dute, eta horri dagokion indizea 102,1ekoa da euroaren eremuan, eta 101,7koa Europar Batasunean. Horiek iradokitzen dute nolabaiteko baikortasuna dagoela lan merkatuari dagokionez. Azkenik, aipatu behar da ziurgabetasunaren adierazlea murriztu egin dela eta orain batez besteko balioetik gertu dagoela.

SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROPAR BATASUNA

2023KO ABUZTUA
92,9




SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA




Herrialdeka, euroaren eremuko bi motorren bilakaera eta beste bi herrialde nagusiek erakusten duten joera bereizi behar dira. Zehazki, Alemaniak 88,6an kokatu du bere indizea, abuztuan bi puntu pasatxo galdu ondoren. Gainera, enpleguari buruzko itxaropenek okerrera egin dute herrialde horretan, eta ziurgabetasuna handia da. Frantzian (91,4), bilakaera antzekoa izan da eta 2,5 puntu galdu ditu hilabete bakar batean. Zerbitzuetan eta industrian atzerakada nabarmena izan da.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA



Aitzitik, Espainiak sentimendu ekonomikoak hobetu zuen abuztuan, eta 102,4an kokatu zen, azken hamabost hilabeteetako balio handienetako bat. Hobekuntza hori industrian gauzatu da, bere batez besteko historikoaren antzeko posizioa hartzen baitu, eta zerbitzuek, berriz, indar handia dute. Enpleguari buruzko itxaropenak oso positiboak dira eta, aitzitik, ziurgabetasuna txikia da. Azkenik, Italiak puntu bat galdu du, baina 100,3an dago, eta industria da bere ekonomiaren ahulgunea.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA



Iturria: Europar Batzordea.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA



ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2022			2023	
			II	III	IV	I	II
BPG	5,9	4,4	5,0	3,8	2,9	2,3	1,6
Barneko azken kontsumoa	5,2	2,2	1,8	2,0	2,1	1,9	—
Familien kontsumoa	5,6	3,0	3,2	2,7	2,3	1,7	—
Administrazioaren kontsumoa	3,9	-0,4	-2,9	-0,4	1,2	2,4	—
Kapital eraketa gordina	6,0	4,4	4,8	5,1	2,9	1,6	—
Barne eskaria	5,4	2,7	2,5	2,7	2,3	1,8	—
Esportazioak	12,7	10,4	13,9	9,4	5,0	6,3	—
Inportazioak	11,6	7,6	9,6	7,6	4,0	5,4	—
Lehen arloa	21,9	0,8	-3,4	7,8	0,7	7,4	—
Industria eta energia	6,1	4,6	5,9	3,6	2,5	1,1	—
Eraikuntza	4,5	2,0	1,3	2,3	2,4	0,9	—
Zerbitzuak	5,8	4,7	5,4	4,2	3,3	2,9	—
Balio erantsi gordina	5,9	4,5	5,2	4,0	3,0	2,4	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	6,1	2,9	2,9	2,6	2,1	1,6	—
Enplegua	5,9	3,1	3,7	2,0	1,9	1,5	1,5

EKAINEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2023			2023	2024
	II	III	IV		
BPG	1,3	1,6	1,2	1,6	2,1
Barneko azken kontsumoa	1,1	2,0	1,0	1,5	1,7
Familien kontsumoa	0,0	1,9	1,2	1,2	1,8
Administrazioaren kontsumoa	4,9	2,1	0,6	2,5	1,4
Kapital eraketa gordina	2,3	5,3	2,2	2,8	2,7
Barne eskariaren ekarpena	1,4	2,8	1,3	1,9	2,0
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,2	-1,3	-0,1	-0,3	0,0
Lehen arloa	-6,0	-11,1	4,0	-1,9	0,8
Industria	0,0	2,8	0,6	1,1	1,8
Eraikuntza	1,7	0,8	0,3	0,9	1,6
Zerbitzuak	2,1	1,6	1,6	2,0	2,5
Balio erantsi gordina	1,5	1,7	1,3	1,7	2,3
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-0,6	0,4	0,4	0,4	0,3
Lanaldi osoko lanpostuak	1,0	0,8	1,0	1,1	1,6
Landunak (BJA)	0,5	0,5	0,4	0,5	0,9

EAEKO BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024		2023	2024
BBVA	2,0	2,6	Funcas	1,4	—
Hispalink (BPGaren aldakuntza)	1,7	2,5	Laboral kutxa	1,3	—
Confebask	1,5	—	Ceprede	1,2	2,2

ESTADÍSTIKA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2022			2023	
			II	III	IV	I	II
BPG	5,5	5,5	7,8	4,9	3,0	4,2	1,8
Kontsumo pribatua	6,0	4,5	5,3	5,1	3,0	1,7	0,5
Kontsumo publikoa	2,9	-0,7	-2,6	-1,3	2,5	1,5	3,8
Kapital finkoaren eraketa gordina	0,9	4,6	6,0	6,3	2,5	0,6	2,0
- Aktibo finko materialak	0,1	4,4	5,8	6,2	2,7	0,8	1,8
- Eraikuntzan	-3,7	4,7	6,5	6,9	4,7	4,9	4,4
- Ekipamendu ondasunetan	6,3	4,0	4,6	5,1	-0,7	-5,9	-2,8
- Jabetza intelektualaren produktuak	4,7	5,5	6,8	6,7	1,5	0,1	2,5
Nazio eskaria (ekarpena)	5,2	3,1	3,8	2,9	1,1	1,4	1,5
Esportazioak	14,4	14,4	20,2	14,2	7,2	10,2	0,7
Inportazioak	13,9	7,9	8,5	8,8	2,1	3,3	0,2

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024		2023	2024
HSBC	2,5	1,1	EthiFinance Ratings	2,1	2,0
Citigroup	2,4	0,9	CEOE	2,0	1,4
BBVA	2,4	2,1	Econ Intelligence Unit	2,0	1,4
Barclays	2,3	0,9	Capital Economics	2,0	0,3
S&P Global Market Intel	2,3	1,0	Fitch Ratings	1,9	1,6
Goldman Sachs	2,3	1,6	CEPREDE	1,7	2,3
Oxford Economics	2,3	1,4	S&P Global Ratings	1,6	1,3
FUNCAS	2,2	1,6	Batez bestekoa	2,1	1,4
UBS	2,2	1,5	Gobernua (2023-04)	2,1	2,4
AFI	2,2	1,6	Espainiako Bankua (2023-06)	2,3	2,2
Moody's Analytics	2,2	1,2	Europar Batzordea (2023-05)	1,9	2,0
Bloomberg Economics	2,2	1,5	NDF (2023-07)	2,5	2,0
Grupo Santander	2,2	1,3	ELGA (2023-06)	2,1	1,9

Iturria: Consensus Forecast.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2022			2023	
			II	III	IV	I	II
AEB	5,9	2,1	1,8	1,9	0,9	1,8	2,5
Txina	8,1	3,0	0,4	3,9	2,9	4,5	6,3
Japonia	2,1	1,0	1,4	1,5	0,4	1,9	2,1
Kanada	5,0	3,4	4,7	3,8	2,1	2,1	1,1
Europar Batasuna	5,6	3,4	4,3	2,5	1,6	1,1	0,5
Eurogunea	5,4	3,3	4,2	2,4	1,8	1,1	0,6
Alemania	3,2	1,8	1,6	1,2	0,8	-0,3	-0,1
Frantzia	6,8	2,6	3,9	1,2	0,7	0,8	1,0
Erresuma Batua	7,6	4,1	3,8	2,0	0,6	0,2	0,4
Italia	7,0	3,7	5,1	2,5	1,5	2,0	0,4
Herbehereak	6,2	4,3	5,2	3,0	3,1	2,1	-0,1

Iturria: Eurostat eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2023KO ABUZTUA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2023	2024	2023	2024	2023	2024
AEB	1,9	0,6	4,1	2,6	3,7	4,4
Japonia	1,4	1,0	3,0	1,7	2,6	2,4
Kanada	1,5	0,8	3,6	2,3	5,4	6,1
Europar Batasuna	0,7	1,2	6,1	2,8	—	—
Eurogunea	0,6	0,8	5,5	2,5	6,6	6,8
Alemania	-0,3	0,9	6,0	2,6	5,6	5,6
Frantzia	0,7	0,9	5,1	2,5	7,1	7,3
Erresuma Batua	0,2	0,4	7,3	3,0	4,1	4,5
Italia	1,0	0,7	6,0	2,3	7,8	7,8
Espania	2,1	1,4	3,5	2,8	—	—
Herbehereak	0,9	0,9	4,4	2,7	—	—

Iturria: Consensus Forecast.